

BAKEA EUSKAL HERRIAN
« ATXIK BERRITUZ » * Kolektiboaren deia

Aiete-ko Konferentziaren urteburu kari, handiesten dugu Euskal Herriko gatazkaren ebazpenaren alde ari diren guzien jarduera, handiesten ere nazioarteko erkidegoak Euskal Herrian bakea bideratzeko egiten dituen ahaleginak.

Eta goraki diogu :

Bakearen aldeko betekizunari loturik, herritargo osoaren ardura izan behar da Euskal Herriaren eta hunen biztanleen eraikuntza gizatiarra, morala eta kulturala bultzatzea.

Inguruko lurralde guzien idurira, Euskal Herria Europaren osagai bat da, hau anizduna eta kulturaskotakoa izaitera deitua delarik.

Maite dugu Bakea, Euskal Herria maite dugun bezala. Sinesdun izanik, konbentzituak gaude erlijio desberdinek beren ekarpen berezia egin dezaketela lurralde huntan bakea finkatzen laguntzeko.

Premiazkoa zaigu sinesdun guziek Bakearen aldeko beren lehiakortasuna ekimen zehatz batzuen bidez adieraztea, bai eta ere gizarte zibilak egiten dituen ahaleginekin bat egiteko nahikunde agertzea. Guziz garrantzizkoa ere zaigu belaunaldi berrieri ahalbideak emanak izan dituen Bakearen aldeko heziketa arloan, Bakea gizabanakoaren eta herrialde bakoitzaren duintasun hautsezinezkoan oinarritzen delarik, hauen askatasun eta burujabetasun eskubidea aitortuz.

Horra zergatik deitzen ditugun beste erlijionetako kide guziak, bai eta ere gure erlijio arduradunak, Euskal Herriko Bake prozesuaren alde engaiatzera.

Iritzi Publikoaren atentzioari bergogoratzen diogu preso (136 frantziar presondegietan) eta atzerriratuen eta hauen familien egoera larria, bai eta ere Euskal Herrian iragan den gatazkaren biktima guziak : ETA erakunde armatuaren biktimak, IPARRETARRAK erakundearenak, sasi-polizia taldeenak eta Estado terrorismoa deitu beharko litaikerearenak.

Euskal Herriaren berreraikuntza gizatiarra eta morala laguntzeko, dei berezi bat helarazten diegu ardura politikoak dituzten gizon ta emazte guzietan, Euskal Herriko Bakearen aldeko neurri zehatzak har ditzaten, eta agiri hunekin bat egiten duten guziak deitzen ditugu azaroaren 10ean aratsaldeko 3.30etan Baionako Euskaldunen Enparantzan beharra den manifestaldian parte hartzera.

* Iparraldeko kristau Kolektiboa.